

Historia etxez aldatuko da

Baionako Liburutegiko artxiboen kontsulta gela gaur itxiko dute sei hilabeterako, udal agiriak eraikin berrira eramateko. Hiriaren sorreratik pilatutako dokumentuak aldatuko dituzte lekuz, hobeto zaintzeko

NORA ARBELBIDE. BAIONA

Baiona eta Euskal Herriko artxibategi berria maiatzean estreinatuko dute Orotara 506 metroko luzerako dokumentazioa pasatuko dute Baionako Liburutegitik Artxibo berrira. Artxiboen munduan, horrela aipatzen dira dokumentuak. Metroka. Apaletan zenbat leku hartzen duten irudikatzeko modua da. Eta etxez aldatzeko orduan, garrantzitsua da jakitea zenbat metroko apalak beharko dituzten etxe berrian, 506 metro ez baita gutxi. Bereziki udal artxiboei dagokienez. Funts handiena Ipar Euskal Herrian. Miarritzeko artxiboek, adibidez, erdia baino gutxiago dute. Baionako Artxibo berrira ekarriko dituzten udal agirien artean, potoloenak eta zaharrenak Baionako horiek dira, hain zuzen: "Ezinezkoa zitekeen liburutegiak ez parte hartzea Baionako Artxiboaren proiektuan, hori delako inportantena, segurtatu du Evelyne Bakardatz Baionako Liburutegiko artxiboen zaintzaileak.

Udal artxiboak, erran nahi baita, egoera zibilaren erregistroak, hau da, bataioak, ezkontzak, hiltzeak, erroldak, katastroak eta hiriaren estatutuak. Baiona hiria existitzen denetik metatu diren guztiak. Erdi Arotik hasita. Alabaina, lekuz aldatuko duten artxibo zaharrena 1336. urtekoa dute. Orduko auzapeza zen Guilhem-Arnaut de Bielek hasi zuen liburua. 1451 aitzineko garaietatik gelditzen den bakarra da, eta Baionako biziaz mintzo da. Baionako eskubide eta pribilegioak finkatzen dituzten testuak agertzen dira bertan. Eta gaskoiez. Garai hartan gaskoia baitzen administrazioaren hizkuntza Baionan. Lekuz aldatuko duten artxibo berriena, berriz, 1939koa dute. Bi datu horien arteko dokumentu zahar eta berri anitz dituzte. Frantziako erregeen gutunak adibidez, dekretu funtzioa zuten gutunak, baita heriotza zigorra zen garaietako borraroen eguneroko lanaren berri ematen duten dokumentuak ere.

Lekuz aldatuko dituzten beste dokumentuen artean, artxibo publiko horiei hamabost bat artxibo pribatu ere gehituko dizkiete. Bi nagusiak, Louis eta Benjamin Gomez anaia arkitektoen artxibo guztiak, baita Baionako juduenak ere.

Genealogiaz, arbasoez, iraganeko biziaz interesatzen direnak etortzen dira bereziki dokumentu hauen kontsultatzera. Anitz arbasoen zuhaitza osatzeko. Azkenaldi honetan usaian baino kopuru handiagoan heldu diren aztertzaileak. Gaur baita, preseski, kontsultarako azken eguna. Gaur arratsean ateak zerratu, eta sei hilabetez ezin izanen da kontsultarik egin. Eta sei hilabeteren buruan, Artxibo berrira dira joan beharko interesatuak.

Liburutegian, ordea, izanen da besterik. Ez baitute dena Artxibora eramanez. Udalarenak ez diren liburu zahar eta berri guztiak bertan atxikiko dituzte. Horien artean, euskarazko dokumentuak. Adibide bat emateko, Wentworth Websterren ipuin bildumen eskuizkribua. Bertan egonen da argazki zaharren bilduma, baita aldizkari zaharrena eta mapena ere.

Artxiboa informatizatu dute

Leku aldaketa martxoan egitekoa dute. Aitzin, liburu guztiak kartoi berezietan sartzekoak dituzte. Izan ere, gaur egun ezin dituzte behar bezala zaindu. Publikoari zerratua dagoen gunen batean dira, tenperatura berezi batekin, baina errautesaren harreman zuzenean daude. Kartoiak hobeki babestuko dituzte. Horretarako, kutxa bakoitza etiketatuko dute. Martxo hasieran lekuz aldatu eta Artxibo berrian berriz ere antolatu beharko dituzte, beste herri eta hirietako artxiboekin batera.

Bizkitartean, Bakardatzek argi du aldaketa horrek "modernizatzeko aukera ematen diela, "guhaurrek ez baitugu mediorik dokumentuen digitalizatzeko. Gainera, artxiboen inbentario guztia informatizatu ahal izan dute etxe aldaketari esker etorri diruarekin. Orain arte paperetan bildua zuten dena: "Lan egiteko tresna anitzez hobe izanen da hemendik goiti. Hori bai, liburutegian gelditzen diren dokumentuei dagokienez, eskaerak paperean egiten segitu beharko da. Leku aldaketarentzat 15.000 euro ordainduko du Baionako Udalak.

Baiona eta Euskal Herriko artxibategi berria maiatzean estreinatuko dute

Baiona eta Euskal Herriko Artxiboen eraikina jadanik egin dago, baina mementoko publikoa ezin da sartu, maiatzan baitute estreinatzekoa. 3.000 metro koadroko eraikinak 12.000 kilometroko luzerako dokumentazioa elkartzeko gaitasuna daukaten apalak ditu. Bertan Ipar Euskal Herriko hiri eta herri guztietako udal artxiboak aurkitzen ahalko dira, baita artxibo pribatu anitz ere. Dokumentu zaharrenak XI. mendekoak izanen dira, eta berrienak XXI. mendekoak. Gaur egun Pauen dauden dokumentuen artean, berez, Euskal Herrikoak direnak bertara ekarriko dituzte. Baionako Merkataritza eta Industria Ganberarenak ere ekarriko dituzte. Baionako Euskal Museokoak ekartzeko proiektua ere badaukate. Baina, horretarako, beharrezkoa da oraindik egin ez duten artxibo horien inbentarioa egitea.